

KANALAK

Enpresa baten kanalak komunikazio, banaketa distribuzio edo elkarreraginerako erabilitako bideak, edo tresnak eta baliabideak dira, eta helburua bezeroekin hornitzaileekin edo beste eragileekin harremanak mantentzea eta negozioaren helburuak lortzea da.

Gure enpresan, hauek dira ondorengo jardueretarako erabilitako kanal nagusiak eta horrela sailka edo aztertu daitezke:

Lehenengo, komunikazio-kanalen inguruan hitz egingo dugu, gure zerbitzua beste pertsonengana helarazteko moduak sailkatuko ditugu eta gure enpresan bi modu nagusi ditugu; presentziala eta online.

Bezeroak gure egitasmoa ezagutzeko bide ohikoena presentziala izango da, izan ere; kartelak, kalean zehar; hitzaldiak, eskoletan, gure lokalean edo beste gizarte-etxeetan; gizarte-etxeetan, ospitaleetan edo beste toki askotan eskaintzen diren panfletoak, triptikoak, banatuko ditugu eta hitzez hitzeko komunikazioa, gure bezeroen artean edo gure bezeroak beste pertsonekin gure zerbitzuaren inguruan hitz egiten dutenean izango da.



Beste aldetik, online bitartez, gure sare sozialak eskaintzen ditugu gutaz gehiago ezagutzeko. Hor bertan egiten ditugun ekintzak, Youtuben eta gure web-orrian islatuko dira eta gure elkartean parte hartzeko informazio gehigarria izango dute.

Horiek izango dira gure bezeroengana eta bezero potentzialengana iristeko erabiliko ditugun komunikazio-kanal presentzial nagusiak.

Banaketa kanalei buruz gure zerbitzua presentziala izango da, horren arrazoia da, eskaintzen ditugun jarduera guztiak gure egoitza nagusian edo aurrez zehaztutako lekuetan egiten direlako. Izan ere, gure zerbitzuaren alderdi garrantzitsu bat eta funtsezkoena, gure bezeroen arteko harremana eta hurbiltasuna eta haiekin osatzen dugun harremana sustatzea.

Dena den, zerbitzua ez izan arren, bezeroek eskuragarri web-orri bat izango dute gurekin online harremanetan jartzeko, edozein zalantza edo galderaren aurrean.

Amaitzeko, salmenta-kanalak aztertuko ditugu. Atal honetan aztertuko dugu gure bezeroak gure zerbitzua nola eskuratu dezakete. Horren barruan hiru salmenta-kanal nagusi daude gure enpresan.



Lehenengoa eta salmenta-kanal nagusia da gure elkartean harpidetzea izango da. Hori bi modutan egin daiteke: gure web-orriaren bidez edo gure elkartean modu presentzialean, bezeroaren datuen inguruko errubrika bat betez eta horrekin izena ematen dute gure elkarterako horretan ezartzen duten denborarako.

Bigarren eta hirugarren salmenta-kanalak gure ekintza bereziak eta opari txartelak dira. Horiek, bakarrik gure elkartean harpidetza eman duten pertsonen esku daude eta gure elkartean presentzialki edo gure web-orrian edo gure aplikazioan erosi edo izena eman dezakete.